

2.– Lan, ariketa eta proba ebaluagarriak ebaluazioa egin duten pertsonen edo horien legeko ordezkariak berrikusiko dituzte. Lan, ariketa eta proba ebaluagarriak berrikus daitezke, baina ezin da horiei buruzko erreklamaziorik aurkeztu. Akta ofizialetan agertzen diren azken kalifikazioak eta mailaz igarotzeko edo titulua lortzeko erabakiak soilik erreklama daitezke.

19. artikulua.– Azken kalifikazioen kontrako barne-erreklamazioaren prozedura.

1.– Lan, ariketa eta proba ebaluagarriak berrikusi zein ez, ikasleek, edo, ikasle adingabeen kasuan, gurasoek edo legeko tutoreek, arlo, ikasgai edo esparru bateko edo batzuetako azken kalifikazioaren kontrako erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute bi laneguneko epean, kalifikazioak idatziz jakinarazten direnetik hasita. Horretarako, idazki arrazoitua aurkeztuko diote ikastetxeko zuzendariari.

2.– Erreklamazio-eskaeran azken kalifikazioari aurka egitea justifikatzen duten alegazioak azalduko dira. Eskaera hori ikasketaburuaren bitartez izapidetuko da; hark kasuan kasuko irakasleari edo kalifikatutako arlo, ikasgai edo esparruaren ardura duen sail didaktikoari igorriko die, eta jakitun jarriko du tutorea, berak koordinatu baitu azken ebaluazio-saioa, zeinean ezarri baita erreklamaturako kalifikazioa.

3.– Lehen Hezkuntzan, erreklamazioa arlo edo esparru bateko kalifikazioaren kontrakoa denean, eragindako irakaslea ikasketaburuarekin bilduko da, erreklamazioa aztertuko dute eta txostena egingo dute, 5. puntuan aipatzen diren alderdiak jasoko dituen, gutxienez.

4.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan, saileko buruak sailaren ezohiko bilera batera deituko du, eta bilera horren akta egingo da. Biler horretan, saileko kideek eztabaidatuko dute ebaluazioa eta kalifikazioa aurreikusitakoaren arabera egin diren eta ezarritako ebaluazio-irizpideak zuzen aplikatu diren. Saileko buruak txosten arrazoitua eman beharko du, ebazpen-proposamen eta guzti.

5.– Erreklamaziorako epea amaitu eta bi laneguneko epean egingo da 3. eta 4. puntuetan aipaturako txostena. Zuzendariari igorriko zaio, eta honako hauek bilduko ditu, gutxienez:

a) Konpetentzia espezifikoak eta lotutako oinarrizko jakintzak ebaluatzeko irizpideak, ikaslearen ikaskuntza-prozesuaren ebaluazioan erabili direnak, bat datozen kasuan kasuko programazio didaktikoan jasotakoekin.

b) Ebaluazioan erabilitako prozedurak eta tresnak bat datozen programazio didaktikoan adierazitakoarekin.

c) Zuzen aplikatu diren programazio didaktikoan ezarritako kalifikazio-irizpideak, arloa, ikasgaia edo esparrua gainditzeko bete behar direnak.

d) Berrikusitako azken kalifikazioa aldatzeari edo berresteari buruz hartu den erabakia.

6.– Barne-erreklamazioa zuzendariak ebatziko du, era arrazoituan, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean ezarritako moduan jakinaraziko zaio erreklamatzaleari. Jakinarazpen hori lanegun bateko epean egin beharko da, goian aipaturako txostena jasotzen denetik hasita.

7.– Zuzendariak tutoreari igorriko dio erabakia, eta, erreklamazioa baietsiz gero, aktak aldatzeko aginduko du.

8.– Ikastetxeko zuzendariak barne-erreklamazioari buruz emandako ebazpenari kanpo-erreklamazioa jarri ahal izango zaio Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzako titularren aurrean.